

## **ALKATETZAREN PROPOSAMENA – UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

Hirigintza eta Udaltzaingo sailek egindako ekarpenak ikusita eta eraginkortasunaren printzipioa aplikatuta, tasen eranskinetan hainbat aldaketa egin beharra dago, alferrikako administrazio-zamak ez izateko eta baliabide publikoak kudeatzeko orduan administraziozama horiek arrazionalizatzeko.

Aldaketa honek ez dio printzipioz eragiten ez aurrekontuaren egonkortasunari, ez egonkortasun finantzarioari, aurretik esan den bezala, ez baitakar tasa-igoerarik; hala ere, tasa kalkulatzeko sisteman egin beharreko aldaketak direla-eta, baliteke tasetan aldaketa txikiak gertatzea.

Gauzak horrela, erabilera publikoko lursailak mahaiekin eta aulkiekin, salgaiekin, saltokiekin, aparatu automatikoekin, eraikuntza-elementuekin eta antzekoekin okupatzeko tasen eranskina aldatu egin behar da; baita azoka txikiak edo merkatu txikiak jartzeko tasak ere, tokiko herri-jabariaren erabilera pribatuagatik edo aprobetxamendu bereziagatik dauden tasak arautzen dituen Ordenantzetan jasotzen direnak, alegia. Eta hori guztia, proportzionaltasun- eta segurtasun juridikoko printzipioak dioena bete aldera.

Proposamen hau eta behin betiko onespena jasoko duen araudia Eibarko Udalaren webgunean kaleratuko dira; era horretan, hauxe ahalbideratuko da: alde batetik, indarrean den araudia eta hura prestatzeko prozesuari dagozkion dokumentuak eskuratzeko irispidea erraza, unibertsala eta eguneratua izatea; eta, bestetik, hartzaile izan daitezkeenak parte-hartze aktiboa izatea arauen prestakuntzan. Hori guztia gardentasun-printzipioaren baitan.

Esandako guztiagatik eta udal arkitekto andreamen txostenean egindako azterketan oinarrituta, aldaketa hauek egitea  
**PROPOSATZEN DUT:**

**ERABILERA PUBLIKOKO UDAL LURZORUAK MAHAIEKIN ETA AULKIEKIN, SALGAIEKIN,**

## **PROPUESTA DE ALCALDIA – TASAS POR LA UTILIZACIÓN PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO LOCAL.**

Ante las aportaciones realizadas por los departamentos de urbanismo y policía municipal y en aplicación del principio de eficiencia, se hacen necesarias diversas modificaciones en lo que a los anexos relativos a las tasas se refiere, de cara a evitar cargas administrativas innecesarias y racionalizar en su aplicación la gestión de los recursos públicos.

Esta modificación no afecta en principio a la estabilidad presupuestaria ni financiera, en tanto en cuanto como se ha mencionado no implica una subida de tasas, aunque si pudieran darse ligeras variaciones fruto de los ajustes necesarios en el sistema de cálculo de dichas tasas.

Siendo esto así, sería necesario modificar el anexo relativo a las tasas por ocupación de terrenos de uso público municipal con mesas y sillas, productos en venta, puestos, aparatos automáticos, elementos de la construcción y otros análogos, así como el relativo a tasas por instalación de mercadillos, de la Ordenanza reguladora de las tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local, cumpliendo así con el principio de proporcionalidad y de seguridad jurídica.

Esta propuesta, así como la normativa que definitivamente se apruebe, serán publicadas en la página web del Ayuntamiento de Eibar para posibilitar, por una parte, el acceso sencillo, universal y actualizado a la normativa en vigor y los documentos propios de su proceso de elaboración y, por otra, para que los potenciales destinatarios tengan una participación activa en la elaboración de las normas, todo ello en base al principio de transparencia.

Por todo lo anterior y en base al análisis efectuado en el informe de la Arquitecta Municipal, **PROPONGO** los cambios siguientes:

**OCUPACIÓN DE TERRENOS DE USO PÚBLICO MUNICIPAL CON MESAS Y SILLAS,**

**SALTOKIEKIN, APARATU AUTOMATIKOEKIN, ERAIKUNTZA-ELEMENTUEKIN ETA ANTZEKOEKIN OKUPATZEA.**

**Eranskinaren 1, 3, 5 eta 6 artikulua aldatzea. Honela geratuko liraterke idatzita:**

1. Ostalaritzako establezimenduek aulkiak, mahaiak, kupelak, eserlekuak, publizitate-elementuak, apaingarriak eta antzekoak jartzean egiten duten okupazioa. Okupazio-moduluagatik kobratuko da "M" bezala definituta okupazio motaren arabera:

- 1 mota. Mahai-modulu estandarra, 3 edo 4 aulkioa, moduluaren (M) zenbatekoa ordainduko da.
- 2 mota. Modulu txikia: mahaia aulki 2rekin; mahai altua; kupela; kupel erdi eta eserlekua. Modulu erdia ordainduko da (1/2 x M).
- 3 mota. Modulu puntuala, publizitate-elementuak, apaingarriak eta antzekoak jartzeko (luzetara jarriz gero, luzetara hartzen dituzten metroekin edo zatikiekin biderkatuko da). Modulu laurdena ordainduko da (1/4xM).

1.1 Okupazioa denboraldiko, martxoaren 15etik urriaren 15era arte, asteko egun guztietan:

M modulua:

- 1. kategoriako kaleetan, denboraldiko	70,00 €
- 2. kategoriako kaleetan, denboraldiko	56,00 €
- 3. kategoriako kaleetan, denboraldiko	44,00 €

1.2. Okupazioa denboraldiko, martxoaren 15etik urriaren 15era, asteburuetan eta jaiegunetan:

M modulua:

- 1. kategoriako kaleetan, denboraldiko	35,00 €
- 2. kategoriako kaleetan, denboraldiko	28,00 €
- 3. kategoriako kaleetan, denboraldiko	22,00 €

1.3 Urte osoko okupazioa, aste gutzirako:

M modulua:

- 1. kategoriako kaleetan, urteko	140,00 €
- 2. kategoriako kaleetan, urteko	112,00 €
- 3. kategoriako kaleetan, urteko	88,00 €

1.4. Urte osoko okupazioa, asteburuetan eta jaiegunetan:

M modulua:

- 1. kategoriako kaleetan, urteko	70,00 €
- 2. kategoriako kaleetan, urteko	56,00 €
- 3. kategoriako kaleetan, urteko	44,00 €

1.5. TERRAZA FINKOAK Urte osoko okupazio-modulua, aste gutzirako.

M modulua:

- 1. kategoriako kaleetan, urteko	238,00 €
- 2. kategoriako kaleetan, urteko	190,00 €
- 3. kategoriako kaleetan, urteko	150,00 €

\*\*\*\*\*

3. Bide publikoa okupatzea bezeroei eskaintzen zaizkien zerbitzuekin: kutxazain automatikoak; produktu-euskarriak

**PRODUCTOS EN VENTA, PUESTOS, APARATOS AUTOMÁTICOS, ELEMENTOS DE LA CONSTRUCCIÓN Y OTROS ANALOGOS**

**Modificar los artículos 1, 3, 5 y 6 del anexo que quedarían redactados como sigue:**

1. Ocupación realizada por establecimientos hosteleros mediante mesas y sillas, barricas, bancos, elementos publicitarios, ornamentales y similares. Se cobrará por módulo de ocupación definido "M" según el tipo de ocupación:

- Tipo 1: módulo estándar de mesa con 4 o 3 sillas, se abonará el importe del módulo ( M)
- Tipo 2: módulo pequeño de mesa con 2 sillas, mesa alta, barrica, media barrica y banco, se abonará el importe de 1/2 módulo (1/2xM)
- Tipo 3: módulo puntual de elementos publicitarios, ornamentales y similares (que, si tienen desarrollo lineal, se multiplicará por la longitud en metros o fracción) se abonará el importe de 1/4 módulo (1/4xM)

1.1 Ocupación por temporada, desde el 15 de marzo al 15 de octubre (todos los días de la semana):

El módulo M

- En calles de 1ª categoría, por temporada	70,00 €
- En calles de 2ª categoría, por temporada	56,00 €
- En calles de 3º categoría, por temporada	44,00 €

1.2. Ocupación por temporada, desde el 15 de marzo al 15 de octubre (durante fines de semana y festivos):

El módulo M

- En calles de 1ª categoría, por temporada	35,00 €
- En calles de 2ª categoría, por temporada	28,00 €
- En calles de 3º categoría, por temporada	22,00 €

1.3. Ocupación todo el año (todos los días de la semana)

El módulo M

- En calles de 1ª categoría, al año	140,00 €
- En calles de 2ª categoría, al año	112,00 €
- En calles de 3ª categoría, al año	88,00 €

1.4. Ocupación todo el año (durante fines de semana y festivos):

El módulo M

- En calles de 1ª categoría, al año	70,00 €
- En calles de 2ª categoría, al año	56,00 €
- En calles de 3ª categoría, al año	44,00 €

1.5. TERRAZAS ESTABLES. El módulo de ocupación todo el año (todos los días de la semana)

El módulo M

- En calles de 1ª categoría, al año	238,00 €
- En calles de 2ª categoría, al año	190,00 €
- En calles de 3º categoría, al año	150,00 €

\*\*\*\*\*

3. Ocupación por servicios prestados en la vía pública a clientes mediante cajeros automáticos, dispensadores de

edo banatzaileak, eta beste edozein motatako instalazioak, erakusmahaiak eta antzekoak, fatxada-lerroan jarritakoak:

productos y cualquier otro tipo de instalaciones, tales como mostradores y similares, colocados en la línea de la fachada:

Kutxazain automatikoak, modulua:

- 1. kategoriako kaleetan, urteko	118,34 €
- 2. kategoriako kaleetan, urteko	72,54 €
- 3. kategoriako kaleetan, urteko	26,75 €

Cajeros automáticos, el modulo:

- En calles de 1ª categoría, al año	118,34 €
- En calles de 2ª categoría, al año	72,54 €
- En calles de 3ª categoría, al año	26,75 €

Gainerakoak, metro lineal edo okupazio-zatiki bakoitzeko:

- 1. kategoriako kaleetan, urteko	118,34 €
- 2. kategoriako kaleetan, urteko	72,54 €
- 3. kategoriako kaleetan, urteko	26,75 €

Resto de modalidades, el ml o fracción de ocupación:

- En calles de 1ª categoría, al año	118,34 €
- En calles de 2ª categoría, al año	72,54 €
- En calles de 3ª categoría, al año	26,75 €

\*\*\*\*\*

\*\*\*\*\*

5. Bide publikoaren okupazioa: obra-kontainerrak; aldamiok; garabiak; kaxetak eta eraikuntzako beste elementu lagungarri batzuk.

5. Ocupacion de la via publica con contenedores de obras, andamios, gruas, casetas y otros elementos auxiliares de la construccion.

5.1. Edukiontziaik eta pareka daitezkeenak (edukiontzi-ibilgailuak; ibilgailu jasotzaileak; auto-garabiak...), okupazio-egun bakoitzeko. 5,00 €

5.1 Contenedores y asimilados (vehículos contenedores, vehículos elevadores, autogrúas, etc), por día de ocupación. 5,00 €

5.2. Garabiak, kaxetak, deposituak eta eraikuntzako beste elementu lagungarri bazuk, m<sup>2</sup> bakoitzeko eta okupazio-egun bakoitzeko: 0,30 €

5.2 Grúas, casetas, depósitos y otros elementos auxiliares de construcción, por m<sup>2</sup> ocupado y día de ocupación: 0,30 €

5.3 Aldamioak, metro lineal bakoitzeko eta okupazio-egun bakoitzeko: 0,25 €

5.3 Andamios por metro lineal y día de ocupación: 0,25 €

5.4. Modulu bateko babes-aldamioak, aldami bakoitzeko eta okupazio-egun bakoitzeko: 0,80 €

5.4. Andamios de protección de un módulo por unidad y día de ocupación: 0,80 €

5.5. Jasogailuak edo karga-jasogailuak; unitate bakoitzeko eta okupazio-egun bakoitzeko: 1,20 €

5.5 Elevadores o montacargas por unidad y día de ocupación: 1,20 €

\*\*\*\*\*

\*\*\*\*\*

6. Aplikazio-arauak:

6. Normas de aplicación

6.1 Tasa honegatik eska daitezkeen zenbatekoak, egindako aprobetxamendu bakoitzagatik likidatuko dira.

6.1 Las cantidades exigibles con arreglo a esta tasa se liquidarán por cada aprovechamiento realizado.

6.2. Aprobetxamenduari baja ematen bazaio baimendutako okupazio-aldia amaitu baino lehen, erabili ez den aldiari dagokion kuota ondoko atal hauen arabera itzuliko da:

6.2. En el caso de baja del aprovechamiento con anterioridad a la finalización del período de ocupación autorizado, se devolverá la cuota por el período no utilizado de acuerdo a lo siguiente :

- Itzuliko den kuota egun osoen arabera hainbanatuko da, Udalari baja jakinarazten zaionetik zenbatuta.
- Ostalaritza-establezimenduek terrazekin egiten duten okupazioaren kasuan, itzuliko den kuota hiruhileko osoetan hainbanatuko da Udalari baja jakinarazten zaionetik zenbatuta. Beraz, ez da itzuliko baja eskatu den hiruhileko horri dagokion kuota.

- En general la cuota a devolver se prorrateará por días completos contados desde la comunicación de la baja al Ayuntamiento.
- En el caso de la ocupación realizada por establecimientos hosteleros correspondiente a terrazas, la cuota a devolver se prorrateará por trimestres completos contados desde la comunicación de la baja al Ayuntamiento, de manera que no se devolverá la cuota correspondiente al trimestre en el que se hubiera solicitado la baja.

6. 3. Aprobetxamenduari alta emateko orduan, urte horri dagokion kuotaren kalkulua ondoko atal hauen arabera egingo da:

6. 3. En los casos de alta del aprovechamiento, el cálculo de la cuota correspondiente a ese año se realizará de acuerdo a lo siguiente:

- Kuota egun osoen arabera hainbanatuko da, Udalak lizentzia eman duen egunetik zenbatuta.
- Ostalaritza-establezimenduek terrazekin egiten duten okupazioaren kasuan, kuota era honetan hainbanatuko da: hiruhileko osoetan; beraz, Udalak lizentzia eman duen datari dagokion hiruhileko osoa eta hurrengoak kobratuko dira.
- En general la cuota se prorrateará por días completos contados desde la concesión de licencia por el Ayuntamiento.
- En el caso de la ocupación realizada por establecimientos hosteleros correspondiente a terrazas, la cuota se prorrateará: por trimestres completos, de manera que se cobrará el trimestre completo correspondiente a la fecha de la concesión de licencia por el Ayuntamiento, y los siguientes.

6.4.- Ondorio horietarako, hiruhileko hauei dagokien urteko kuotaren zati proportzionala aplikatuko da: urtarrila-martxo; apirila-ekaina; uztaila-iraila eta urria-abendua.

6.4.- A los efectos anteriores, se aplicará la parte proporcional de la cuota anual correspondiente a los siguientes trimestres: enero-marzo, abril-junio, julio-septiembre y octubre-diciembre.

6.5. Ostalaritza-establezimenduen okupazioari dagokionean (mahaiaik eta aulkiak, kupelak, bankuak, publizitateko elementuak, elementu apaingarriak eta antzekoak), jaiegunetan eta asteburuetan oinezkoentzakoak izaten diren kale horietan baino ez da utziko astean zehar jarritako mahaiaik baino mahai gehiago jartzen.

6.5. En la ocupación realizada por establecimientos hosteleros mediante mesas y sillas, barricas, bancos, elementos publicitarios, ornamentales y similares, sólo se permite diferente número de mesas entre semana y fin de semana en calles que se peatonalicen el fin de semana.

\*\*\*\*\*

\*\*\*\*\*

Eranskin horretatik ezabatu egingo da 4.3. artikulua lehengo epigrafe hau: "Ordaindu behar den kuota 5 eurotik beherakoa denean ez da likidaziorik egingo."

Además, desaparecería del anexo el epígrafe primero del artículo 4. 3 en el que dice "No se emitirán liquidaciones cuando la cuota a abonar sea inferior a 5 €".

#### **ERANSKINA. AZOKA TXIKIAK**

#### **ANEXO DE INSTALACION DE MERCADILLOS**

Guneak aldatu egiten dira. Honela geratzen dira:

Cambiar las zonas, que quedarían así:

Okupazioa **erdialdean**, metro lineal bakoitza 39,55 € hiruhileko.

- Ocupación en **zona centro**, por metro lineal al 39,55 € trimestre

- Okupazioa **Urkizun**, metro lineal bakoitza 29,90 € hiruhileko.

- Ocupación en **Urkizu**, por metro lineal al 29,90 € trimestre

#### **ERANSKINA: BIDE PUBLIKOA OBRA-KONTAINERREKIN OKUPATZEA.**

#### **ANEXO DE OCUPACION DE LA VIA PUBLICA CON CONTENEDORES DE OBRA**

Eranskin hau ezabatu egiten da tasa hori dagoeneko sartuta dagoelako erabilera publikoko udal lursailak mahaiekin eta aulkiekin, salgaiekin, saltokiekin, aparatu automatikoekin, eraikuntza-elementuekin eta antzekoekin okupatzeko tasen eranskinean.

Desaparece este anexo en tanto dicha tasa por ocupación ya esta prevista en el anexo de ocupación de terrenos de uso público municipal con mesas y sillas, productos en venta, puestos, aparatos automáticos, elementos de la construcción y otros análogos, generando una duplicidad.

Eibarren 2018ko uztailaren 20an

En Eibar a 20 de julio de 2018

Alkatea  
Miguel de los Toyos Nazabal

El Alcalde  
Miguel de los Toyos Nazabal